

120 Bis Bq

Abbadia Euskal Erlaitza

Hendaia, Urruña

Pirinioen
eta Atlantikoaren
topalekua




Conservatoire
du littoral

Itsas hegiko bideari jarraiki, Hendaia eta Donibane artean

Interes publikoagatik «onez oneko» desjabetze prozedura batez erosi ahal izan zion «Conservatoire du littoral» izeneko itsas hegieren erakunde zaintzaileak, 1979. urtean, Institut de France (Académie des Sciences) delako Zientzia Akademiari, Antton Abadiak, 1897an, akademia horri oinordetasunez utzia zion jabegoaren zati bat. Hendaia herria hastapenetik arduratu zen parke «basa» horren kudeatzeaz eta orori zabaltzeaz; herriarentzat berdeguneen eskaintza ederra da parke hori, hondartza eta itsas jardueren osagarri. Data horretatik goiti, itsas hegieren erakunde zaintzailea pazientzia handiz saiatzen da Abadiako jabegoa izan zenaren lurak erosten, bai eta Euskal Erlaitzaren gainerako lurak ere, hau da, Urruñako herriaren itsas hegikoak. 2000. urtean, Pirinio Atlantikoetako Departamendua ere parkearen kudeatzaile bihurtu zen, eta 2011n, CPIE-IAEZI Euskal Itsasbazterra ere bai; horrela, tokiko animatzaile gisa indartua izan zen azken hau.



Atlantikoa eta Pirinioak tokiaren moldatzen joan dira, milioika urteotan, eta geologikoki tokiak duen aberastasuna mundu osoan da ezagun. Flyscheko itsas ezpondak ez dira soilik eder! Haien irakurriz, gure planetaren antzin-antzinako garaietaz ikasten dugu.



Marearteko zona, itsas ezpondak, larreak, soro zabalak, hesiak eta zuhaitz guñeak abere-landareentzako hainbat habitat desberdin dira eta bertako xenderetan abiatzen den ibiltariarentzat paisaia aldatzen doa etengabe.

Jabegoaren lehengo etxaldeak garai batean garrantzitsu izan zen eta oraindik bizirik den laborantza baten lekuko dira. Haien izenak ez dira beti ahozkatzeko erraz, pasaiako bisitariarentzat: Larretxea, Larrextaberri, Nekatoenea, Asporotstipi, Katalinkoenea! Zaharberitu eta egokiturik, talde kudeatzaileen egoitza dira (Larretxea), edo animatzaileena (Asporotstipi), egonaldietara datozen artisten eta ezagutza eskolen egonleku (Nekatoenea) eta, nola ez... ardien babesleku ere bai (Larrextaberri). Asporotstipi, euskal etxalde tipikoaren itxura berreskuratu du, urte zenbaitetan, «le Boléro» izenez ezagun zen diskoteka izan ondoren; orain Euskal Erlaitzaren Etxea da. Museo alde bat eta mintzaldi eta aldi baterako erakusketa areto bat ditu orain, publiko guztiari zabalik.

Laborantzak naturagune horren kudeatzen parte hartzen du ere, ardiak alhatzera emanaz. Tokiko bariatateen zaintzaile den fruitu baratzeak bariatate zenbait biltzen ditu. Baratze horretako zenbait sagarrez sagarinoa egiten da. Urrunxeago, sasoiak heltzean, euskarri arraro batzuek, itsas-belar gorriak igotzen dituzte marearteko zonatik, jele edo lodigarrien egiteko.

Muino baten gainean kokaturik, Gaztelu-behatokia Viollet-le-Duc-ek eta Duthoit-ek eraiki zuten Antton Abadiarentzat, eta Zientzia Akademiarena da oraino. Arkitektura neogotikoa, jabe izan zuenaren biziaren adierazgarri da eta apaindura joria bat dator, osoki, Abadiak esploraziorako, hizkuntzalaritzarako, astronomiarako eta geofisikarako zuen tirria sutsuarekin.

Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzailearen egitekoa

Gizarteari funtsezko zaizkion erronkei arrapostu eman eta funtsezko egin beharrak betetzen ditu: itsas hegiko naturaguneen desagertzea eta balioa galtzea ekiditea, hain zuzen ere, itsas hegia suntsi erraz izateaz gain, oso gutiziatua baita.

Egiteko nagusia lurak eskuratzea du, betirako atxikiak izan daitezzen.

Lurak erosiz, Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzaileak, epe luzerako babes ematen die. Gure itsasertzeen aberastasun biologikoa, estetikoa eta nortasuneko atxikitze moduan eta orori zabalik uzteko moduan lehengoratzen ditu eta egokitzen leku horiek.

Egite horretan, lurralde elkargoekin, erakunde publikoekin, ingurumenari beha diren elkarteekin eta enpresa fundazioekin iraupen luzeko elkarlanean ari da.

Itsas Hegiaren Erakunde Zaintzailea Akitanian

Akitaniaren itsasbazterren ordezkaritza, egoitza Bordelen duena, itsas hegiko hiru departamenduetan aritzen da, Girondan, Landetan eta Pirinio Atlantikoetan.

9 kideko talde bat aritzen da, erakundeak Rochefort-en duen egoitzarekin eta guneen kudeatzaileekin lanean. Talde horrek lurren begiratzeko eta lurren eskuratzeko ardurak ditu eta guneak ongi kudeatuak izan daitezzen arduratzen da ere, itsas hegia babestua eta orori zabalik izan dadin

www.conservatoire-du-littoral.fr

Ordezkaritzaren ekintzak lurralde elkargoen sostengua du, bereziki Akitania Eskualdearena, inbestitze programan, funtzionamenduan eta komunikazioan laguntzen baitu; departamenduek naturaguneak eskuratzen laguntzen diote.



Abbadia - Corniche basque



- a - Goéland leucophaea - Kaio hankahoria
- b - Héron garde-bœufs - Lertxuntxo itzaina
- c - Salsaperrille - Endalahara
- d - Grand Cormoran - Ubarroi handia



Guneari buruzko informazio baliagarriak

lat: 43°22' N | long: 1°44' W

Jendeen hartzeari, azalpenez hornitu bisitak, Asporotsttipin, Euskal Erailtzaren Ebxean. Ebxea eta itsasoaren gaineko behatokia mugikortasun murriztua dutenentzako helgarri dira

Asporotsttipi - Euskal Erailtzaren Ebxea

Route de la Corniche - CD 912 - 64700 Hendaia

Tel: 05 59 20 37 20 • www.abbadia.fr

Gaztelu-behatokiaz informazioa biltzeko : www.chateau-abbadia.fr



Agazkien kredituak: Conservatoire du littoral, Pascal Clere / CPH littoral basque, Jaki Perrat-Marnet
Irudiztatzaia: Alain Gloneczak
Imprimé sur papier issu de forêts gérées durablement, fabriqué à Condat (24). Pixagram 05 57 544 700